



LEHENDAKARIAK 2016ko EUSKADI IKERKUNTZA SARIA EMAN DIO AGUSTIN SANCHEZ LAVEGA ASTROFISIKARIARI

Iñugo Urkullu Lehendakariak eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak Agustin Sanchez Lavega astrofisikari eta Bilboko Ingeniaritza Eskolako (UPV/EHU) Fisika Aplikatuko katedradunari eman diote 2016ko Euskadi Ikerkuntza Saria, gaur arratsaldean Lehendakaritzan burutu den ekitaldian.

Hezkuntza Sailak urtero deitzen du jarduera zientifikoa sustatzea helburu nagusi duen Euskadi Ikerkuntza Saria. Baina ekimen honek, honako beste helburu hau ere badu: Euskal Autonomia Erkidegoko eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ikertzaileek eta talde kualifikatuek egiten dituzten ahaleginak sustatzea eta bultzatzea, betiere horien lanak oso eragin positiboa badu Euskadin. Urte bakoitietan, Gizarte-Zientzien eta Humanitateen modalitatean egiten da deialdia; urte bikoitietan aldiz, Zientzia eta Teknologia arloko profesionalen lana aitortzen du sariak, azken honetan gertatu den bezalaxe.

Agustin Sanchez Lavega (Bilbo, 1954) Zientzia Fisikoan lizentziatua da (1978an), eta Euskal Herriko Unibertsitatean doktore 1986an. Ibilbide profesionala 1980an hasi zuen Alemaniako *Max Planck Institut für Astronomie* institutuan (Heidelberg, Alemania), CAHA hispaniar-alemaniar Astronomia Zentroan, Almeriako Calar Alto behatokian. UPV/EHUren Ingeniaritza Goi Eskola Teknikora 1987an itzuli zen, eta bertako katedradun da 1994tik.

Sanchez Lavega irakaslea aitzindari izan da Euskadiko espazio-zientzien arloan astronomia eta astrofisika txertatzen: gure erkidegoan, GCP – Planeta Zientzien Taldearekin gauzatu zen ikertzaile-eskola sortu zuen, eta 2009an Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan Espazio Gela eta Behatoki Astronomikoa fundatu zituen.

Sanchez Lavegaren ikerketak eremu esperimentalak bezalaxe –hainbat motatako teleskopio eta plataforma espazialekin buruturiko behaketen bidez- arlo teorikoa ere hartzen du: Jupiter, Saturno eta honen satelite Titan-en atmosferetako ekaitz-ereduen garapena eginez; Venus, Jupiter eta Saturnoko zirkulazio jeneralen eta haizeen inguruko ereduen bidez; eta planeta erraldoietako antizikloi eta zikloi erraldoien izaerari buruzkoak garatuz.

Oinarrizko zientzian egin duen ikerketaz gain, Sanchez Lavega irakasleak astronomia-instrumentazioaren garapen teknologikoan ere badihardu, UPV/EHUren *PlanetCam* proiektuan. Teknologia espazialaren eremuan, Europako Espazio Agentziaren zenbait proiektutan parte hartu du, hala nola, Venus Express misioaren VIRTIS proiektuan, eta JUICE misio espazialaren MAGIS proiektuan. Gainera berriki, Martitz planetarako NASAren Mars 2020 misioan MEDA instrumentuaren ikertzailekide eta koordinatzaile zientifikoa izendatua izan da.



Era berean, Sanchez Lavega irakasleak lan intelektual trinkoa ere egin du, astronomia eta espazio-zientzietako ezagutzaren zabalkundearekiko konpromisoa hartuta. Zabalkunde eta saiakera liburu zenbaiten idazle ere bada: “*Planetas Exteriores*” (1987), “*Origen y Evolución: desde el Big Bang a las sociedades complejas*” (1999), “*Misterios a la luz de la Ciencia*” (2008).

Epaimahaiak aintzat hartu du Sanchez Lavega irakasleak ikerketan eta irakaskuntzan izandako ibilbidea, eta Zientzia Planetarioen alorrean nazioarteko erreferente bihurtu den ikerketa-taldea sortu eta zuzendu izana. Horrez gain, nabarmendu nahi du haren ikerketa-lana maila eta ikusgarritasun handiko argitalpen ugaritan islatu dela, eta nazio-mailako eta nazioarteko hainbat proiektutan parte hartu duela, ikertzaile nagusi gisa. Sarituak oso ekarpen garrantzitsua egin dio atmosfera planetarioen azterketari, baita haiek ikertzeko metodologia berritzaileen garapenari ere.

Halaber, zientziaren dibulgazioan eta zientzialari gazteen prestakuntzan urte luzez egindako lan oparoa goraiatzan du epaimahaiak

2016ko Euskadi Ikerkuntza Sariaren epaimahaia Zientzia eta Teknologia arloan ospe handiko bost kidek osatu dute, hala nola: **Manuel Tuñón de Lara**, mediku pneumologoa eta Bordeleko Unibertsitateko Errektorea; **Maria Jesus Esteban Galarza**, matematikaria, Frantziako CNRS-ko ikertzailea (*Centre National de la Recherche Scientifique*) eta EMSko (*European Mathematical Society*) Matematika Aplikatuaren Batzordeko presidentea; **Luis Antonio Oro Giral**, Kimika Inorganikoan Katedraduna Zaragozako Unibertsitatean; **M^a Teresa Miras Portugal**, Biokimika eta Biologia Molekularrean Katedraduna, Madrilgo Complutense Unibertsitatean; eta **Javier Tejada Palacios**, Oinarrizko Fisikako Departamentuan Katedradun, Bartzelonako Unibertsitatean.

Gasteizen, 2017ko ekainaren 13an